

*Andereak eta Jaunak, egun on*

*Lehenik bihotzetik eskertzen zaituztegu Ikasen biltzar nagusira jinik. Badakigu dei eta hitzordu anitz badirela bestalde, biltzar nagusiak eskuin eta ezker, eta hautetsien partetik, legebiltzarreko hauteskunderen prestatzeko bilkurak.*

*Usaiaz kanpoko lekuan dugu aldi honetan biltzar nagusia ospatzen. Eskerrik bizienak Itsasuko herriari ongietorria egiten baitigu toki eder honetan. Are gehiago, Itsasu herri euskaltzalea baita, gure helburuei ohore egiten diegu hemen bilduz, Ikas zentroaren 25garren urtemugaren karietara.*

*Bide egin duela Ikasek 25 urtez!*

*Abiatzeko nekeak gainditu ditu, kemen handirekin lan eginez, eta erakunde publikoak, bereziki Hezkunde nazionala, konbentziturik Ikasi konfiantza egiten ahal zaiola ikasmaterialgintzaren eginkizunaren betetzeko.*

*Urratsez urrats, katalogo ederra osatu du Ikasek, eta aski da behako baten ematea argitalpenen erakusketari ikusteko uzta oparoa dela.*

*Hori posible izan da lan taldea ere osatuz joan baita: bi lanpostu ziren hasieran, 1997an (zuzendariarena eta dokumentalistarena) eta orain 11 lagun dira ari Ikasen, orotara 8 postu oso.*

*Lan baldintzak ere hobetuz joan dira, Ikasek Lota jauregia utzi zuelarik duela hamar urte xuxen, justu ondoan plantatzeko, oraingo egoitzan, eta Uztaritzeko herriko etxearen laguntzaz.*

*Leku arras egokia da jendeen hartzeko, irakasleak bistan da, baita irakaslegaiak ere, eta haien formatzaileak. Hedadura ederra kausitu du Ikasek.*

*Haatik, jendarte osoan gertatzen ari den bezala, Ikasen zerbitzuak ere gero eta gehiago Internet bidezkoak dira. Covid pandemiak mugimendu hori indartu du gainera.*

*Agian Internet zerbitzu eraginkorrek ez dituzte gure arteko harremanak ttipituko. Asmatu beharko ditugu dudarik gabe gure arteko lokarrien atxikitze bideak.*

*Hain zuzen desafio nagusia dugu bigarren mailako irakasleekin lan gehiago egitea. Bigarren mailako pedagogia tresna gehiago sortu behar dugu.*

*Ez dute besterik adierazi Hezkunde Nazionalak eta Euskararen Erakunde Publikoak, iragan udazkenean, Ikasen ebaluazioaren karietara.*

*Alde bat ados gara helburuekin: lehen mailarentzat orain bezala segitu behar dugu, eta ahalaz hautu gehiago eman ere, hala nola matematika sailean.*

*Bigarren mailako eskaintza garatu behar dugu. Bide horretan gaude euskara sailean, irakasle batek kolegioko edukiak sortzen baititu denbora erdiz, eta berdin egiten ari da beste irakasle bat historia eta geografia sailean. Baliabide guti dira, baina bederen irakasleak ez dira deus gabe uzten.*

*Orain matematiken eta zientzien aldi da. Matematika sailean dinamika ederra bada irakasleen partetik eta proiektuak ez dira falta. Ikas harremanetan da matematika ikuskariarekin eta laster formatzaileen batzordearekin.*

*Argitalpen sailean aritzeko irakasle bat behar dugu. Hezkunde Nazionalak lehen mailakoa eman zuen 1999an, eta jada dokumentalistarena eman zuen haste-hastetik, 1997an.*

*Ikas pedagogia zerbitzua sortu eta 25 urte iragan eta, bigarren mailakoa eman baleza, denek sinets genezake posible dela oraingo beharren arabera tresnen egiteko gauza garela, itzulpenetik sorkuntzara iraganez matematika eta zientzietan ere.*

*Jada 2014an, "le cas échéant", erran nahi baitu "beharrez", Hezkunde Nazionalak bigarren mailako postua eman lezakeela idatzi zuen orduko hitzarmenean.*

*Ordu da, mementoa da, eta sarri gai hori berriz aipatuko dugu aurtengo aurrekontuen aurkezpena egiterakoan, Hezkunde Nazionalari dei eginez, Euskararen Erakunde Publikoaren sostenguz.*

*Ikas bide onean da, baina ikasmaterialgintzan ere senti da beste hein batera heldu behar garela hasierako helburuen betetzeko: pedagogia tresnen eskaintzea gai eta ikasmaita guzietan.*

*Dozena bat urtez Ikas elkarteburu gisa xede horren betetzen lagundu eta, lekukoa utziko dut. Agian bigarren mailako irakasle bat izanen da lekukoa hartuko duena.*

*Gogoan ditut ene aitzinekoak: 1997an Danièle Albizuk Xan Errotabehereri lekukoa eman ziola, Xan Errotabehererek Mixel Jorajuriari, hark Alazne Petuyari eta honek niri utzi.*

*Dozena bat urtez Ikas elkarteburua izanik, eta kargu horren lekukoa uztekoan delarik, Maite Erdozaintzik suharki eskertu zituen Ikas bulegokideak eta Ikaseko langileak, aipamen berezia eginez Aines Dufau zuzendariaren aldera.*